

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: GITARRA 2020ko MARTXOaren 7a

2020ko MARTXOaren 7an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **gitarra** espezialitatean. Bertan Marco Socías irakasleak eta Musikeneko gitarra ikasleek parte hartuko dute.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten **gitarra** ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten gitarra ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Zein da jardunaldien helburua?

- Goi Mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei eta bertan egongo diren irakasleei sarrera probei buruzko informazioa ematea, bertan eskatuko den maila eta gomendatzen den erreperitorioa barne.
- Ikaslearen mailaren balorazioa egitea, proposatzen dituen obrak entzunez.
- Musikenen bertako ikasleekin egiten den lana erakustea.

Lan-egitasmoa

10.00-11.00: Ate irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Oboe espezialitatearen ikasketa-planari buruzko informazioa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera probei buruzko azalpenak. Eraikinari bisita gidatua.

11.00-11.45: eskolak egingo diren gelan Marco Socías espezialitate irakasleak edukiak azalduko ditu eta gitarrarako obra bat interpretatuko aurkezpen gisa.

12.00-13.30: gitarra irakasleak eskola irekiak emango ditu interesa duten ikasle aktiboentzat.

13.30-15.00: atsedena

15.00-18.00: gitarra irakasleak eskola irekiak emango ditu interesa duten ikasle aktiboentzat.

18.00-19.00: Musikeneko gitarra ikasleei eskola eta horien entzunaldi laburra.

19.00: Jardunaldiaren amaiera.

Non:

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Hari instrumentuen Departamentu buruarekin: Marta Moll
mmoll@musikene.eus